

**LAUGARREN
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**

IDATZIZKO AZTERKETA



ARGIBIDEAK

Azterketa honek bi zati ditu:

1. Ahozko azterketa

Azterketa unean emandako gai bat garatu beharko duzu. Gaia prestatzeko 10 minutu izango dituzu. Gai horretaz gain, epaimahaikoek egin dezaketen zenbait galderari ere erantzun beharko diozu.

2. Idatzizko azterketa

Bi ariketa izango dituzu:

- Laburpena

Jarritako testuaren laburpena edo sintesia egin beharko duzu idatziz, eskatzen zaizun egoerari egokituz.

- Iritzi-artikulua

Emandako gaiaz, iritzi-artikulua egin beharko duzu.

✻ Denbora

Ahozkoa alde batera utzirik, **laburpena eta iritzi-artikulua egiteko hiru ordu izango dituzu.**

1. IRAKURMENA

Ariketa: Egin ezazu ondorengo *testuaren laburpena*.

Oharrak: Kontuan izan *gehienez ere 30 lerro* eduki behar dituela eta ezin jar ditzakezula jatorrizko testuaren zatiak elkarri lotuta; aitzitik, *konposizio berria* egin behar duzu, nahitaez.

Bestalde, agian *lagungarri* izango zaizu hurrengo puntuok gogoan hartzea laburpena egiterakoan:

- Lehenbizi, testuaren *ideia nagusiez jabetu*.
- Ideia nagusi horien inguruan gorpuztu laburpena bera. Testu berria sortzerakoan ez zaitetz subjektiboa izan. Honez gain, testuak *murritza* izan behar du, *koherentea* eta *argia*, eta bertan erabiliko diren kontzeptu teknikoak erraz ulertzeko moduan eman beharko dira.
- Beraz, laburpen horrek egiazko testua beharko du izan, jatorrizkotik *autonomiaduna*, eta gramatikaren aldetik *zuzena*.

SOFTWARE LIBREA ADMINISTRAZIOAN

Ekonomia eta segurtasuna dira software librearen dohainik ezagunenak. Horiez gain, tokian tokiko hizkuntzetara moldagarria da eta, horregatik, mundu osoko administrazio publikoak ari dira software librea pasatzen. Gurean ere, erakunde publiko eta alderdi politiko gehienak bat datoz software librea bultzatu behar dela esatean, baina irizpide horiek gauzatzeko prozesuan oztopo asko gainditu behar dira.

Hasteko, software librea zer den azaldu beharra dago, gainera bada ere. Edozein programa informatiko agindu multzoa da, ordenagailuari zer informazio nola prozesatu behar duen azaltzen diona. Agindu multzo horri iturburu kodea esaten zaio. Jabetun kodeaz ari gara hizketan, programa prestatu duenak iturburu kodea erregistratu eta berau babesteko neurriak hartzeaz, inork berak prestatutako kodea profitatuz programa horren antzekorik egin ez dezan. Azken urteotan software enpresa gehienek jabetun kodea garatu eta babestu dute.

Alabaina, kode irekiaz ari gara programatzaileak, erregistratu barik besteentzat eskuragarri uzten duenean, lagunek kode hori hobe dezaten eta programak garapen handiagoa izan dezan. Noski, egileak bere eskubideei uko egiten die eta horren kontura aberasteko aukerari ere bai.

Kode librea da software librearen oinarria, baina software libre esaten zaio hobekuntzak beti filosofia berarekin jarraituko duten bermea ematen duen lankidetzaren ereduari. Eredu horri esker, programak hobetu baizik ez dira egingo, ekarpenak beti hoberako izango direla bermatzen baitu eredu honen mekanismoak.

Software librea garatzen edo hobetzen dutenak ez dira erabiltzaile arruntak izaten. Alde batetik, software librea sortu eta garatu duten enpresak daude, edo eurek lagundutako fundazioak, Mozillaren garapena abian jarri zuen Netscape edo OpenOffice.org garatzen duen Sun enpresa, kasu. Unibertsitateak edo ikerketa zentroak ere badira, horien artean BSD sistema eragileak garatu dituztenak, esate baterako. Azkenik, boluntario talde koordinatuak daude, programatzailez osatuak eta dirulaguntzarik gabe jarduten dutenak.

Filosofia honek oraintsu arte indarrean zegoena irauli egin du, gero eta programa hobeak garatu direlako eta jabetun softwareari aurrea hartzeko gai direla frogatu dutelako. Erabiltzaile arruntak, eskaintza librea ezagutu ahala, konturatzen ari dira alternatiba ona dela, eta arrakasta honek jabetun

softwarea saltzen duten enpresak jarri ditu kinkan. Batez ere orain arte izugarri aberastu diren multinazionalak kaltetu ditu software librearen arrakastak eta denen artetik bat nabarmentzen da: Microsoft inperioa.

Bill Gatesen enpresa bere nagusitasuna profitatzen ari da oraindik, prozesu luzea izango baita erabiltzaile gehienak software libreria pasatzea. Hasteko, milioika erabiltzailek jakin ere ez dakite alternatiba librerik dagoenik: Windows sistema kargatzea, testuak Worden idaztea, sarean Explorerrekin nabigatzea eta posta elektronikoa Outlooken jasotzea munduko gauzarik naturalena iruditzen zaie. Besterik badela jakinda ere, zaila izaten da errotutako ohiturak aldatzea, orain arte egiten genuena egiteko programa berriak ezagutzeko lanak hartzea eta horrek Microsoften alde egiten du. Gainera, nagusitasuna eta berarekiko mendekotasun teknologikoa bermatze aldera, maniobrak egiten ari da Gatesen enpresa, edozer egiteko haren produktuetako bat erabil dezagun.

Baina software librearen aldeko argudioak gero eta sendoagoak dira eta horietariko bat segurtasuna da. Kooperazio lan molde batean garatua dago, eta gardentasun bermea du software libreak, begi gehiagok akatsak hobeto nabarmentzen dituztelako. Horrek erabiltzailearen pribatutasuna zainduko duen bermea ere badakar, ez baitugu itsu-itsuan enpresa baten esana sinetsi beharrik. Gainera, segurtasunaren arloan Windowsek eta Microsoften beste programek dituzten akatsek erabiltzaile asko gogaitzen ari dira azken urteotan, denbora, dirua, datuak eta pribatutasuna galtzen baita birusen erasoen ondorioz. Horrelako arazoak oso gutxitan agertzen dira Linux edo BSD sistema eragile libreak dituztenen ordenagailuetan.

Ekonomia da beste argudio inportantea: batez beste, Windows sistema eta Office sorta ordainduta dituen ordenagailu bakoitzeko 300 bat euro kostatzen dira programa horiek. Hirugarren munduko herrialde asko ari dira Linux eta OpenOffice.org bultzatzen, mendekotasun teknologiko eta ekonomikoa amaitzeko helburuarekin. Hala, Namibiako eskoletan edo Indiako ordenagailu gune komunitarioetan aurkitzen dugu software libre. Vietnamen inon baino software pirata gehiago dago, Windows sistemaren kopia piratak egiten baitira. Baina ez dirudi pirateria irtenbide ona denik: zaila da eguneraketak eta laguntza teknikoak lortzea, segurtasun arazok jarraitu egiten dute eta mendekotasunak ere bai. Txinako gobernuaren helburua da, apurka-apurka, Windows bertako ordenagailuetatik desagerraraztea. Horretarako, Linux sistemaren banaketa bat garatu dute Red Flag izenekoa. Gainera, Windowsen alternatiba izango den Asianux ari dira garatzen japoniarrekin batera.

Software librearen beste ezaugarri bat hainbat hizkuntzatar moldatzeko gaitasuna da. Honek berebiziko garrantzia du hizkuntza gutxituentzat, oso merkea baita Linux sistemaren edo gehien erabiltzen diren programen euskarazko bertsioak sortzea. Windows euskaratzeko, Microsofti bere sistema itzul zezan sekulako dirutza ordaindu behar izan zion Eusko Jaurlaritzak;

erabiltzaileek berdin erosi behar izan zuten euskarazkoa eta gainera laster zaharkituta geratu zen itzulpena.

Extremadurako administrazioak munduan ospea irabazi du bere Linex sistema bultzatzeagatik. Linuxen banaketa berezi hau milaka CDtan banatu dute doan herritarren artean, eta askok instalatu dute euren makinetan. Funtsean, nabigatzeko, postarako, idazteko eta beste hainbat gauza egiteko programak ditu, baina idazmahaiak, karpetek eta elementu grafikoek Extremaduraren irudiak erakusten dituzte. Hala ere, gure etxeetan bezala, ezinezkoa da gure udaletxe, aldundi eta bestelako instituzioetan aldaketa egun batetik bestera egitea.

Asmoak behintzat norabide horretan doaz. Izan ere, software librearen aldeko aldarrikapenak onartu dira Nafarroako Parlamentuan eta Eusko Legebiltzarrean, baita hainbat aldundi, unibertsitate eta udaletan ere. Politikarientzat erakargarria da aldarrikapena, eta PSOEk ere agindu zuen hauteskundeak irabaziz gero administrazioan software libre ezarriko zuela. Baina asmo onen deklarazioak gorabehera, eguneroko jardunean erabakiok praktikara eramatea zaila izango da.

ZABALA, Jabi. *Berria*, 2004ko urtarrilaren 18a.

5

10

15

20

25

30

2. IDAZMENA

Ariketa:

Jarraian liburu, egunkari edo aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu. Testu-aipamena lagungarri izan daitekeen abiapuntua da, baina **testu autonomia** sortu behar duzu, ez aipamenean esaten denaren iruzkin bat. Konposizioak **500 hitz** inguruko luzera izan behar du.

Oharrak:

Idazlana ebaluatzeko orduan euskara jaso eta aberatsa erabiltzeko gaitasunari begiratuko zaio. Besteak beste, honako puntu hauek izango dira kontuan: gaiarekiko lotura, gramatika-zuzentasuna, testuaren egituraketa (kohesioa, koherentzia...) eta bakoitzaren arloko hiztegi berezituaren erabilpena, gaiak ahalbidetzen duen neurrian.

1. Testu-aipamena

INTERNETEN NAZIOARTEKO KUDEAKETA

Internet jendearen esku dagoen baliabide globala izatera heldu da eta hori kudeatzeak informazioaren gizartearen agendako gairik funtsezkoenetakoa izan behar luke. Interneten nazioarteko kudeaketak alde askotakoa, gardena eta demokratikoa izan behar luke, gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta nazioarteko erakundeen erabateko inplikazioarekin. Baliabideen bidezko banaketa ziurtatu beharko litzateke, denen eskura egotea erraztu eta Interneten funtzionamendu egonkor eta segurua bermatu, hizkuntza aniztasuna kontuan hartuta.

Interneten nazioarteko kudeaketari buruzko gaiari era koordinatuan heldu behar zaie. Nazio Batuen idazkari nagusiari eskatzen diogu interneten kudeaketari buruzko lan talde bat antola dezala, beti ere denen parte-hartze aktiboa ziurtatuko duen prozesu ireki eta integratzaile batean, herrialde garatuetako eta garabidean daudenetako gobernuen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren esku-hartzearekin.

Informazioaren gizarteari buruzko goi bileraren (WSIS) printzipio-deklarazioa.

Geneva, 2003

2. Testu-aipamena

WEB ORRI ELEBIDUNAK DISEINATZEA

Web orri elebidunetan edukia bi hizkuntzetan dago, eta orrialde gehienetan testua bi hizkuntzetan ageri da. Testu osoa izan liteke, izenburuak edo beste hizkuntzaren izena duen lotura bat. Ez da oso ohikoa bi hizkuntzetako testu osoak batera agertzea eta, beraz, testuen arteko loturak eta bestelako diseinu baliabideak erabili behar dira.

(...) Web gunearen hasierako hizkuntza aukera ez da nahikoa. Erabiltzaileek web gunea elebiduna dela garbi eduki behar dute web gune osoan zehar.

(...) Oso inpresio txarra emango du gunearen jabeak testuak hizkuntza batean eguneratzen baldin badira eta beste hizkuntzakoak gero itzultzeko geratzen badira.

(...) Gune elebidunetako artxibo-egitura hasieratik erabaki behar da. Artxibo-egiturak bikoiztea gomendatzen da. Bi bertsioetako orrialdeek izen bera dute, baina direktorio desberdinetan gordetzen dira; grafikoak eta bestelakoak, berriz, karpeta bereizi eta konpartituetan.

Interfaces for bilingual Information Systems. Principles informing good practice.
School of Education, University of Wales, Bangor.

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75

80

85

90

95

100

105